

# IRUNGO EMAKUMEEN LANBIDEAK



## JOSTUNAK

### Nor tzuk ziren:

---

Kolon pasealekuan, Aduanako kalearekin izkina egiten. Ahozko zein idatzizko zenbait testigantzatan oinarrituta, pentsa dezakegu hemen zegoela Bonnacaze ahizpen tailerra. Graciosa Bonnacaze-ren ondoren, Irunen zeuden jostun tailer ugarien artean garrantzitsuenak, beharbada.


Irun beti izan zen gune garrantzitsu bat oihalen salerosketan. Kokapenagatik eta 1841ean aduana jarri bitartean zeuden foru arauak tarteko, baziren Irunen oihal inportazioan jarduten zuten merkatari dirudunak, batez ere Baionako kolonia juduan hornitzen zirenak. Zenbait dokumentutan jasota dago merkatari horietako batzuk emakumeak zirela, Bidasoaren alde batean zein bestean. Pentsatzekoa zenez eta, geroago, turismoaren sorreraren ondorioz, Irunera etortzen ziren oihalak erostera eta beren jantziak egitera Donostiako emakume asko, eta bertan oporretan zeudenak ere bai. Horren ondorioz, tailer garrantzitsuak sortu ziren, jostuntza profesional handiek eramaten zituztenak, eta Parisera joaten ziren azken nobedadeen berri izateko. Horren harira, Estatuko lehen moda aldizkarietako bat argitaratu zen Irunen, “El figurín” izenekoa, gerora “El Bidasoa” argitaratu zuten tailer beretan sortua.

Bonnacaze ahizpen tailerrean berrogeita hamar bat emakumek lan egiten zuten. Fisikoki esker txarreko lana zen, postura txarregatik eta argi faltagatik, baina giroa oso bestelakoa zen neskameen bakardadearen eta kontrolaren aldean edota fabriketako gogortasunaren aldean. Gainera, hango langileak hirian ongien jantzitako emakumeak ziren, eta abesti bat ere egin zitzaizen, haien dotoreziaren eta edertasunaren lekukotasuna ematen zuena. Abesti haren edukia galdu da, ordea.

### Non topatu dezakezu:

---

[Paseo interaktiboak](#)



Parean elkartea eta Gipuzkoako Foru aldundia